

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jendaurrean jartzea uraren, zaborren eta estolderiaren 2020ko hirugarren hiruhilekoko erroldak

Okondoko udalerriko ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuen tasak ordaindu behar dituztenen 2020ko hirugarren hiruhilekoko erroldak prestatu ondoren, Alkatetzaren 2020ko urriaren 2ko 221 Dekretuaren bidez onetsi dira.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesdunek espedientearen udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzearen errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldiran ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2020ko azaroaren 9tik abenduaren 9ra arte.

Borondatezko aldiran ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldira hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Bankuetan helbideratutako ordaintzetarako, zergadunek ez dute inolako izapiderik egin behar, eta bankuak 2020ko abenduaren 1ean egingo du zordunketa.

Ordaintzetak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2020ko urriaren 8a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO